

3. atala

EUSKARA


Jone eta Aritz neba-arrebak lurretako historia ezagutu guran Gallanda mendira igo ziren. Ederra da handik eskualdearen ikusmira. Eskualdean bizi izan ziren lehenengo gizakien aztarnak zein ingurutan dauden ikasi zuten, baina...

- Jone! Orduko gizaki haiek ere euskaraz egiten zuten berba?
- Galdera ona Aritz! Hala ematen du bai.
- Hara! Eta orain hitz egiten dugun bezala egiten zuten berba orduan ere? – Mutila jakin-minez zegoen.
- Antzera, baina ez berdin. Inguru hauetan kultura eta hizkuntza ezberdinetako biztanleak ibili izan dira beti eta horrek eragina izan du gure hizkuntzan.

Gallanda azpiko lur hareatsuan Euskal Herriko mapa bat marraztu zuen Jonek neba txikiari gaia hobeto azaltzeko.

- Begira Aritz. Erromatarrek hona heldu zirenean horrela izendatu zituzten hemengo herri ezberdinak eta inguru honetako biztanleei karistiar deitu zieten. – Jarraitu zuen Jonek.



karistiarrek



baskoiak



erromatarrek



- Baina erromatarrek ez zuten latina ekarri?
- Bai. Erromatarren inperioak eragin handia izan zuen eta hizkuntza ugari desagertu ziren, tartean, garai hartan euskararen inguruan hitz egiten ziren iberiera, hizkuntza zeltak, galiera... Euskarak, oster, iraun egin zuen.

Aritzek ezin zuen sinetsi beraien hizkuntza "txiki" hark halako inperio handiaren aurrean ere biziraun izana.

- Garai hartako euskararen arrasto gehienak Pirinio inguruko araretan aurkitu dira, gaur egungo Euskal Herriatik iparraldera batez ere - Jarraitu zuen Jonek - baina Kantauri itsasoko ertz honetako herrietan ere euskara hitz egiten zela uste da.
- Aizu Jone, eta nondik dator euskara orduan?
- Oraingoz ezin jakin Aritz! Antzinarotik, hori seguru! Dena dela gure hizkuntzaren misterio edo lorpen handiena ez da jatorria, hainbeste urtez bizirautea baino!

ARIKETA:

- Koloreztatuko dituzu garai hartan hemen bizi ziren, karistiar, baskoi eta erromatar hauek?
- Etxekoen laguntzaz, zure izenaren eta abizenen jatorria ikertuko? Elkarbanatu emaitza lagunekin.